

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000000955

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_DEK0495**Xedea**

**Funtsezkoak ez diren zerbitzuetako langileentzako ordaindutako baimen errekuaragarria arautzen duen martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretua. 2020ko apirilaren 3ko 2020000937 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren indarraldia luzatzea.**

**Aurrekariak**

Lehenengoa: COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, zenbait neurri hartu zituen pertsonen mugikortasuna mugatzeari dagokionez, bai eta gure herrialdeko gizarte- eta ekonomia-jarduerak mugatzeari dagokionez ere.

Diputatuen Kongresuaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenaren bidez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak aitortutako alarma-egoeraren luzapena baimentzeko erabakia argitaratu da. Ebazpen honen bidez martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera luzatzea baimentzen da.

Bigarrena: 2020ko martxoaren 24ko 2020000816 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez emergentzia egoera aldarrikatu zen, giza baliabideen kudeaketaren inguruan, COVID-19ak sortutako egoerarekin lotura zuzena dituen kasuetarako:

“LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea. Aldarrikapenak, onartutako Alarma Egoerak iraun bitartean izango dau eragina.

BIGARRENA: Emergentzia egoeraren aldarrikapenak kontratazioan, gastuaren kudeaketan eta giza baliabideen kudeaketan eukiko dau eragina, COVID-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.”

Hirugarrena: Martxoaren 29an, funtsezkoak ez diren zerbitzuetako langileentzako ordaindutako baimen errekuaragarria arautzen duen 10/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, 2020ko apirilaren 3ko 2020000937 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez, funtsezko zerbitzuak ez diren lanpostuetako eta telematikoki lan egiteko aukera ez duten lanpostuetako langileei ordaindutako baimena eta errekuaragarria ematea onartu zen, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean, biak barne.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004052A00L5X0M0R9Q5L4

**Sinadurea eta data**

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/04/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/04/2020 21:42:12

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DEK0495

Data: 03/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



## Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren helburu nagusia da herritarren osasuna zaintzea beti ere, oinarri legez, udal langileen osasuna bermatuz. Alarma egoera berezi eta premiazko honetan, udal langileen osasuna zaintzeko eta martxan jarritako isolamendu sozialeko neurriak ahalik eta gehien errazteko, Osasun Agintaritzen gomendioak kontuan hartuz, Bermeoko Udalak hainbat neurri onartu ditu dagoeneko.

Bigarrena: Kontuan hartuta lan- eta lanbide-jarduera dela gaur egun gertatzen diren joan-etorri gehienak eragiten dituen arrazoia, agerian geratu da lan-esparruan neurri bat hartu behar zela, mugimenduen muga hori artikulatu ahal izateko eta lortu nahi den efektua lortzea ahalbidetuko duten mailetaraino murrizteko helburuz onartu zen 10/2020 Errege Dekretua. Arau honetan jasotako erregulazioaren lehen tasuna, beraz, mugikortasuna ahalik eta gehien mugatzea da.

Hirugarrena: Aipatutako martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

***“Disposición adicional primera. Empleados públicos.***

El Ministerio de Política Territorial y Función Pública y los competentes en las comunidades autónomas y entidades locales quedan habilitados para dictar las instrucciones y resoluciones que sean necesarias para regular la prestación de servicios de los empleados públicos incluidos en el ámbito de aplicación del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, con el objeto de mantener el funcionamiento de los servicios públicos que se consideren esenciales.”

Ildo horretan, 2020ko martxoaren 30eko 20200000873 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez funtsezko zerbitzuak onartuz gain, telematikoki lan egiteko aukera duten lanpostu guztiak telelanaren bitartez lan egiteko agindua ematen da.

Halaber, gainerako lanpostuei ordaindutako baimena eta errekeragarria, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean, biak barne, ematea onartu da.

Laugarrena: Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. eta 51. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio publikoek eskumena dute beren zerbitzuko langileen lan-denboraren antolamendua ezartzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.m) artikulua ezartzen du negoziatu egingo direla, bakoitzak bere eremuan eta administrazio publiko bakoitzaren



eskumenei dagokienez, eta kasu bakoitzean legez dagokion irismenarekin, besteak beste, lan-egutegiari, ordutegiari eta lanaldiei buruzkoak.

**Bosgarrena:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua xedatzen du:

“Artículo 21.

1. El Alcalde es el Presidente de la Corporación y ostenta las siguientes atribuciones:

m) Adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o de infortunios públicos o grave riesgo de los mismos, las medidas necesarias y adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.”

## Erabakia

**Lehenengoa:** 2020ko apirilaren 1eko 2020000909 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez onartutako funtsezko zerbitzuak alarma-egoerak irauten duen bitartean mantentzea:

- Idazkaritza
- Kontuhartzaitza
- Diruzaintza
- Erregistro Orokorra
- Herritarren arreta telematikoa
- Zerbitzu informatikoak
- Unitate administratiboetako arduradunak.
- Udaltzaingoa
- Garbitasun zerbitzuak (eraikinak, kale garbiketa eta ureztatzea)
- Kaleko oinarrizko mantenua eta premiazko konponketa zerbitzuak
- Hondakinen batze zerbitzuak
- Hilerriko lurperatze zerbitzuak eta ehorzte zerbitzuak.
- Udal Azoka
- Argiteria publikoa
- Ur hornidura
- Gizarte Ongizateko oinarrizko zerbitzuak
- Indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuak
- Zaharren egoitza
- Etxez etzeko zerbitzua
- Babes zibila.
- Ura eta berau bermatzeko zerbitzua.
- Argiteria publikoa.
- Obra zerbitzuak.
- Animaliak artatu eta babesteko zerbitzuak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40004052A00L5X0M0R9Q5L4

### Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/04/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/04/2020  
21:42:12

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DEK0495  
Data: 03/04/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**Bigarrena:** Telematikoki lan egiteko aukera duten lanpostu guztiak telelanaren bitartez lan egiten jarraitzeko agindua ematea alarma-egoerak irauten duen bitartean.

**Hirugarrena:** Salbuespenezko neurri moduak eta alarma-egoera honi aurre egiteko, 2020ko apirilaren 6ko 20200000937 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuan ezarritakoaren arabera, funtsezko zerbitzuak ez diren lanpostuetako eta telematikoki lan egiteko aukera ez duten lanpostuetako langileak ordaindutako baimena eta errekuuperagarria egoeran jarraitzea alarma-egoerak irauten duen bitartean:

Lanpostua	Langilea
Kultura etxeko arretako langilea	Fernandez Allika, Raquel
Kultura etxeko arretako langilea	Larrazabal Barainka, Santiago
Liburutegi atezaina	Etxaburu Basaldua, Unatx
Liburutegi eta artxiboko adm. Lag.	Maguregi Erekatxo, Elisabeth
Udal eraikinetako garbitzaileak	Bordas Losada, Esti
Udal eraikinetako garbitzaileak	Miguela Alvarez, Patxi
Udal eraikinetako garbitzaileak	Munitiz Fernandez, Josu
Udal eraikinetako garbitzaileak	Gabantxo Bereinkua, M. Begoña
Udal eraikinetako garbitzaileak	Erauzkin Elorriaga, Arantza
Udal eraikinetako garbitzaileak	Anasagasti Garmendia, Rosa
Udal eraikinetako garbitzaileak	Bilbao Mentxaka, Miren Jakinde
Udal eraikinetako garbitzaileak	Gil Ampara, Pili
Udal eraikinetako garbitzaileak	Rivas Hernandez, Josu
Bide eta obratako arduraduna	Aiestaran Aiestaran, Josu
Hilerriko langilea	Crespo Bilbao, Juan Manuel
Bide eta obratako ofiziala	Garcia Santaren, Julen
Bide eta obratako ofiziala	Esain Elortegi, Jabier
Bide eta obratako ofiziala	Gametxo Bilbao, Jon Ander
Bide eta obratako ofiziala	Castrillo Ordorika, Aitor
Bide eta obratako ofiziala	Allika Elgezabal, Iñaki
Bide eta obratako ofiziala	Ispizua Madariaga, Fco. Javier
Bide eta obratako gidaria	Gutierrez Trejo, Jon Patxi
Bide eta obratako peoia	Oleaga Zelaiazugadi
Bide eta obratako peoia	Olalde Larrocea, Eneko
Lorazaina	Urrengoetxea Zorrozueta, Jon
Lorazaina	Bengoetxea Olaizola, Iker
Lorazaina	Menendez Gandarias, Jon
Lorazaina	Zabala Bilbao, Josu Mikel
Herri eskoletako jagolea	Uribarri San Miguel, Andoni



Baimenak irauten duen bitartean, langileek ohiko zerbitzuak ematen ari balira legokiekeen ordainsaria jasoko dute.

Ordaindutako baimenean egin ez diren lanorduak errekeratzeari buruz, 10/2020 Errege Lege Dekretuaren hirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, egin ez diren lanorduen errekerazio hori alarma-egoera amaitzen denetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean egin beharko da, errekeratze hori enpresaren eta langileen ordezkarien arteko kontsultaldi ireki batean negoziatuz, gehienez ere zazpi eguneko iraupena izango du, beti ere alarma-egoera amaitzen denean.

Laugarrena: Behin alarma-egoera amaitzen den unean, negoziazio mahaia deitzea, egin ez diren lanorduak errekeratzeko moduak negoziatzeko.

Bosgarrena: Erabaki hau sailburuei, langileei eta sindikatuari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Seigarrena: Erabaki hau Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

Zazpigarrena: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran Dekretuaren barri ematea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .

**Sinadurea eta data**